


Madrilgo inposizioak eta Jaurlaritzaren morrontzak langile publikoak pobretzen ditu

EAEko Gobernu Kontseiluak bere menpe dauden langile publikoen erosahalmena beste %4.5 jaistea erabaki du. LABek hauxe dio:

- Iragarritako %2aren soldata igoera oso urrun gelditzen dela iaz KPIak izandako %6,5eko igoeratik. Hau da, langile publikoari aurretik murriztutako erosahalmenari **beste %4,5eko mozketak** bat egiten zaigu.
- 2010ean Zapaterok eta Lopezek langile publikoari egindako %5eko murrizketa sonatu hartatik gaurdaino ez da erosahalmena berreskuratzeko inolako borondaterik erakutsi Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Kontrari, dagoeneko esplizituki onartu du langileok diru hori galduta dugula, eta **ez duela halako zorrik duenik onartuko**. Jaurlaritzak bere langileekin urte hauetan metatu duen zuzeneko zorra, Itzarri BGAeri zeharkako soldata ekarpenak alde batera utzita, **%9koa** da dagoeneko.
- Langile publikoon soldatak eta egonkortasuna termino duinetara ez eramateko jartzen duen aitzakia legeen muga izan da beti. LABen iritziz, EAJ eta PSE Madrilen hartzen diren erabakien atzean ezkututzen dira erantzukizunak gainetik kentzeko. Beste **estrategia alderdikoien eta enpresariaren aurrean irmotasun handiagoa erakusten dute, sektore publikoa indartzea baino**. Alderdi horientzat estrategikoa da sektore publikoa ahultzea pribatuaren mesedean.
- Lan erreformaren dekretuaren eztabaidan PNVk bertako negozioazio kolektiboa sutsu babestu badu ere, koherentzia noraino iristen zaion argi uzten du urtero Mahai Orokorraren negozioazioetan: birjartze tasak eta soldata igoerak Madrilek agintzen dituenak eta kito. **Ez da inondik ere bere lehentasuna**, txalo eta «eskerrik asko» huts batzuk eskaintzeaz gain.



KPIaren, Eusko Jaurlaritzak agindutako soldata igoerak eta erosahalmenaren bilakaera, 2010eko %5aren murrizketa eman zenetik. Madril zein Gasteizko gobernuetan zeuden gobernu alderdiak ere aipatzen dira.

